

Bidebieta

«Venezuelan aberatsen eta txiroen arteko aldea oso handia da»

Amaia Fernandez udaran Venezuelan izan da matematika eskolak ematen, Eusko Jaurlaritzak emandako bekari esker. Caracaseko auzo batean izan ondoren, 24 urteko auzotarra etxera iritsi berria da eta bere bizipenak kontatu dizkigu.

Zer moduz moldatu zinen Caracasen irakasle gisa?

Bederatzi eta hamasei urte bitarteko neska-mutilei matematika eskolak eman dizkiet. Kenketak, biderketak eta bestelakoak irakatsi dizkiet. Nirekin joandako Bizkaiko eta Gipuzkoako beste lagun batzuek ingeles eta lengoia eskolak eman dituzte. Ortografian egiten dituzte akats gehien gaztetxoek. Venezuelan udan izan gara eta horregatik, eskolan erdipurdi zebiltzanei eman diegu laguntza, irailean azterketak gaindi zitzaten, eta zailtasunik ez zutenei hurrengo urteko aurrerapena egin diegu.

Zer nolako hezkuntza sistema dute Venezuelan?

Ni egon naizen auzoan haur asko daude eskolatu gabe eta oso gutxi iristen dira unibertsitatera. Neska asko hamabost urterekin haurdun gelditzen dira eta hori gertatuz gero, akabo; seme-alabez arduratu behar dute eta ezin diote pobrezari izkin egin. Deigarria da, bestalde, sendi askotan



Amaia, erdian, bere urtemuga egunean kandelak itzaltzen Caracasen

«Oso jende eskuzabala topatu nuen»

gizonak, familia utzita, etxetik alde egiten duela eta seme-alabak zaintzeko ardura amak hartzen duela bere gain.

Nolako giroa topatu zenuen?

Egoera politikoa oso nahasia da. Oposizioak sekulako indarra du, komunikabideak kontrolpean ditu. Chavez presidenteari ahalik eta traba gehien jartzen ari zaizkio, boteretik kentzeko.

Eta nolako da zuk ezagutu zenuen jendea?

Oso jende lasaia eta eskuzabala topatu nuen Julian Blanco auzoan. Adibide bat jartzearren, irina funtsezkoa da eta mugatuta dute, baina

nire urtebetetze egunean, tarta bat egin zidaten. Bizi-baldintzei dagokienez, eskasak dira. Baldeetan bildutako urarekin duxatu behar izaten dute eta argia kaleko instalaziotik hartzen dute. Delinkuentzia handia dago eta behin, eskolak ematen ari nintzela, tiroketa bat entzun genuen.

Caracas hirian bertan egon al zinen?


Bai, hiri handia da, etxeblokeekin eta urbanizazioekin. Ez du zerikusi handirik ni egon nintzen auzoarekin. Dena dela, hiriburuan ere nabaria da pobrezia. 'Buhoneros' goitizenez ezagutzen direnak daude; alegia, etxean zer edo zer egin, jakiren bat esaterako, eta metro geltokietan saltzera joaten direnak. Venezuelan, aberatsen eta txiroen arteko aldea oso handia da.

Venezuelako zein txoko gustatu zaizu gehien?

Lehen partida, larunbatean

Larunbatean, hilak 18, estreinako partida jokatuko da zahaerriko futbol jasoan. «Jasoan» futbol zelaietan jubenil mailako «Lengokoak» eta «Barakaldoko C.F.D.» taldeak lehiatuko dira. Partida eguerdiko 12:00etan hasiko da.

Andeetan izan naiz eta bertako Merida hiria gustatu zait gehien. Euskal Herria ekarri zidan gorora. Oso ingurune berdea da, lasaia, jendeak lurra lantzen du... Venezuela sekulako herrialdea da; oihana, mendia, basamortua... denetarik dago. Eguraldi tropikalak ere ustekabean harrapatu ninduen. Izan ere, udara euri garraia da eta, batik bat, uztaileko euri zaparrada bortitzez beldurra eman zidaten. Zorionez, ez zen inolako ezbeharririk gertatu.



Caracaseko Julian Blanco auzoa



Amaia, ezkerrean, bere ikasleekin